



Bertiz

Bertiz lurraldea aipagarria da, bere ohian aberatsa zoragarria da, mota guzietako zuhaitzak, Jauregi ederra eta etxe gehiago ere bere inguruan. Lorategia eta inguru guziaz atsegingarria. Nafarroa eta Euskal-erriak daukan lekurik ederrenetakoa. Bere dermioak 2.040 Hektarea osatzen ditu eta lurraldea Bertizaranako egiten da. Ingu-ruan ditu, Ipar aldetik Etxalar, sortaldetik Baztan, Ego aldetik Bida-soako ibaia eta sartaldetik Bertizaranako lurtekin. Bertizek Oronoz-Mugaitetik dauka sarrera. Lurraldearen goitasuna 110 m. Mugairen eta 830 m Aizkolegi gaina. Hemen etxe polit bat kokaturik dago.

Bertizko kondairaren sorrera aspaldikoa da, 1392-ean agertzen da lehenbiziko Nagusia Pedro Migel Bertiz. Garai hartako Karlos III Nafarroako Erregeak izendatu zuen 1398 urtean gure alderdiko Aintzindari haundi bat bezala. Bertizko lurralde hunek Nagusi gehiago ere izan ditu mendez mende iraun dutenak. Urteak iraganik 1723 garren urtean ikusten dugu Nagusi bezala Juan Franzisko Aldunzin Bertiz. Gero horren ondotik Beso-lla Markesa dugu yaun ta yabe eta hunen ondotik Los Arkos Yauna. Urteak badoaz eta XIX mendean Nartabateko Felipe Oteiza Yauna daukagu Nagusi berria finka osoa erosirik. Erratan dutenez Baztango Udala ere egon omen zen Bertiz erostekotan baina dirurik ez zuelakotz ez zuen erosi. Penagarria! Gero Pedro Ziga jaunak erosi zuen finka osoa 1898-an. Ziga yauna ezagutu ginuen. Lan haundiak

egin zituen Bertizen, hoiaren artean Aizkolegi gainean eraiki zuen etxe polita eta ongi egiña. Ohian ere sekulako landatzeak, zuhaitz bereziak urrundik ekarriak. Jauregia edertu, loretegiak eta zoko guziaz ongi apaindurik bazituen. Ohian zaindaria edo «guardak» deitzen zirenak. Baita ere ematen zuen baimena Baztango nekazari xerriak ohianean sartzeko ezkurraz eta bagatzaz bazkatzeko, hau Urriaren eta Larrazkenean izaten zen. Ziga jaunak loretegi ederra zeukan eta ongi apaindua, hortarako bazituen serbitzariak eta lanean ongi zakitenak. Urteak holaixe iraganik 1949 garren urtean hil zitzaizkion baina lehenik testamentua eginik.

Bertiz lurralde osoa Nafarroako Diputazioari eman zion eta dermio guziaz ondo zaindu zezan aldakuntzarik egin gabe. Baita ere Jauregia Apez zaharren egoitza izateko. Lehenbizien etorri ziren apez zahar jubilatua Bertizera bizitzera baina urte guti iraun zuen apezaren egoitzak.

Azkenean Jauregia hutsik gelditu zen eta orain Nafarroako Gobernuaren esku dago. Etxe eder hau ongi apaindurik eta ondoko etxeak ere erakustokiak bihurturik gauza ikusgarriak erakusten dituztela. Bazterrak ongi apaindurik Nafarroako Gobernuak arras ongi zaintzen du Bertiz. Yende aunitz etortzen da Bertiz ikustera, bere fama ona edatua dago Nafarroan eta bai Euskal-erri guzian. Bertiz lurraldeak iraun dezala eta bere ospea berriatu daiela mundu osoan.

M. Izeta

Ausi puskatu txikitu erre ta kiskali

Eta, okerren okerrena... /oitzen ari gerala!

Nola arraio sortu ote zaigu Euskal-erriaren, gure burua ondatzeko leia nazkagarri ta zoro zipotz au?

Iraillaren 10'ean ari naiz idazten. Gaur goizean sutan ziraute oraindik Iruña'ko kaleetan gauz sutan jarritako zaramategi edo basuroak.

Ta egin dire bart zerrikeri geiago Iruña'n bertan: Bi autobus erre dizkigute. Autobus oiekin batera beste bi beribil ere sutan kiskaliak izen dire; eta zazpi zaramategi, sei telefono-txabol eta lau paperzartegi.

Iruña'tik at ere zakar ibilli zaizkigu deabrutxo ttontto gixagaixo oiek: Zarautz'en adibidez: Euskal-jaiaren azkeneko eguna ospatzen zen gure itxasaldeko erri bikain ortan. Beti izen dute napparrek uri polit ortarako joera berezia. Baitan udaz bertan oporrak igarotzeko gogoia ere: diru-apurtxo baten jabe direnak, bai noski, ez bait da merkea Zarautz'ko biziera.

Baa Zarautz'en, goizeko 4'30'etatik aurrera, jaiak zearo amaituta mundu guztia lotan zegoanean, or agertu dire kaleetan «errisalbatzailleak», gogoan zuten guztia ausiz eta kiskaliz. Gutxi gora bera Iruña'n egindako kakazukeri berdiñak: Goizeko 5'ak ziren ertzaintzak pakea lortu duenean. Ertzain bat zauriturik irten da borroketatik. Ez dute ertzain orren zauria gozatzeko deus esan. /Ai, ordea, zauritua deabru ttipi oietako bat izen ba'litz!

Gutxi ziren noski errisalbatzailleentzat Zarautz'ko eta Iruña'ko «azaña» aintzagarri oiek-eta, gau ontan bertan beribil bat eta «Pakearen Usoa» deritzan monumentuaren aurren zarama-edo basura pillo bat erre dizkigute Donosti'n, beribil bat Ondarrabi'n, eta zaramategi-sail bat Ernani'n. Bilbao'n berria arrika ibilli dire ertzaindiaren aurka.

Gau beltza, gau zikiña, gau inguingarria, igaro-berria dugun

gaua. Ez da, zoritxarrez, aurrenekoa. Ez da, ezta, azkenekoa izen-go. ¿Zer esan ordea orrenbesteko nardakeriren aurrean.

Lendabiziko gauza, ori ez dela Euskal-erri bakarraren gaitza. Beste Erriek ere izen dutela gaitz ori eta izengo dutela seguruaski gerontzean ere.

Bizidun gorputzari beti sortzen zaio zorne, kakari, ustelkeri, ar, eta zizare eta zorri. Era berean gizarte orori, gizarte bakoitza ere gorputz bizi bat delarik. Errisalbatzalle oiek dire baa, gaur-egun gure gizarteari sortu zaizkion zorri nazkagarriak: Euskal-erriari sabeleko este-zokotan erne zaizkio zizare zikiñak. Orra or Euskal-erria salbatu nai duten iraultzalariak. Badakit zer esan naito didazuten: iraultzalari aski izen dela eta badela beste Errietan ere; iraultzalari oiek ordea ez direla dekulan beren Erria salbatzeko, egunez-egun, jo ta ke, beren Erri ori ondatzen ibilli.

Ez. Ori... euskaldunoi bakarrik tokatu zaigun «pribilegio» berezia da. Zergatik guri bakarrik orrelako suertea? Beste inork guk bezain iraultzalari marxista-leninista-maoistak yayo trebe azkar eta «progresistarik» izen ez duelako. Iraultzalari oro-ondatzaille miresgarri oiek nor diren? Ez noski pintaketan, erreketan, apurketan eta bonba-jarketan dabilten mutiko gaixoak. Oiek, beren adiñari legokion beñio umeagoak diren mentalitate laburreko gaztetxo burubiguin batzuek besterik ez bait dire. Izenik gabeko erokeri guzti onen errudunak KAS'en aurkituko dituzu. Eta KAS'en esanera ari diren Etatarren eta HB'ko buruzagien artean. Ezaguna duzu beren mandamentu nagusia: Giro paketsu batetik sekulan komunismora igarotzen ez delako, gizarteko pakea porrokatu, ta asarrea, eziñ-egona, alkarrenganako gorrotoa ta borrokaren sua piztu, iraultzarako giroa prestatzeko.

Latiegi'tar Bixente

Igantzikoko I Herri lasterketa

Datorren Urriak 1ean, Igantzikoko bestetako ekitaldien artean, «Igantzikoko I Herri lasterketa» burutuko da, Kategori desberdinetan edozein adinetako neska-mutilek parte hartu ahal izanen dute hiru lehenengoentzat sariak izenen direlarik. Bi zirkuito izenen dire: gaztetxoentzat A zirkuitoa (500 m takoa), eta goi kategorientzat berri, B zirkuitoa

(2000 m takoa). Lehenengoentzat, izen emate ordua 10,00 etatik 10,30 tara izanen da, eta gainerakoentzat 11,00 etatik 11,45 tara; parte hartzen duten guztiak, kamiseta bat jasoko dute. Lasterketa ondotik, guztientzat hamaketako bat eskeiniko da.

Igantzikoko I Herri lasterketa hay, Igantzikoko bestetako batzordeak antolatú du.

Berri Ona

Aberatsak aberats; pobreak pobre

«Il zen eskalea; il zen aberatsa» (Lk. 16, 19-31)

PURPURAZ eta leiñuz jazten zen gizon aberatsaren eta Lazaro deituriko eskalearen parabola oso ezaguna egiten zaigu. Bein baiño geiagotan entzun dugun parabola da.

Parabola gogorra izateaz gain jende askoren egoera larria eta gorria agertzen digun parabola da. Pobreak ezin du ezer egin aberatsaren aurrean, mundu onetan, noski. Pobreena da, ordea, zeruetako erreinua eta betiko saria.

Mundu ontako edo gizarte ontako azokak badiu akatsak. Ondasunak banatzen ez du ikasi, zuzentasunez banatzen beintzat, ez du ikasi. Kastuak eta irabaziak ez daki orekatzen. Orregatik gutxi batzuk aberats eta asko pobre.

Lurralde aberats eta pobreen artean zer gertatzen da? Munduko ondasunak eta aberastasunak 24 nazio aberatsak banatzen dituzte (%66) eta beste guztia (abertasunen %34a) eumdaka nazio pobreen artean. Ikusten duzu aldea?

Gure errian ere beste orrenbeste gertatzen da. Aberatsak gero ta aberatsagoak dira; pobrea, berriz, egunetik egunera pobreago. Ondasunak eta aberastasunak ez daude ongi zuzentasunez banatuak. Soldata txikia dutenei zergak ez zaizkie barkatzen, ez txikitzen. Diru beltzarekin -pobreen zergak, noski- patrikak gizendu eta nai duten tranpak egiten dituztenek zerga eta inpuesto guztietatik liberatzen dira.

Baiña jokera ori gizarte ontako erakunde guztiak gertatzen da. Erakundeak ezezik, norbakoitzaren jokabidea ere oso antzekoa da. Zer egiten dute politikoa? Zer nolako jokabidea dute sendagileak? Zer jokaera dute kirolariak? Nola jokaten dute majxu-maistrak? Dendari txikiak, naiz aundiak? Eta... zerrenda luzea egin dezakegu banan bana salatuz.

Ez da esaten ebanjelioan pobrea elizkoia, zintzoa edo fededuna zenik. Ebanjelioan ez da agertzen aberatsa emakume zalea zenik edota familia zale ez zenik. Bakar bakarrik, ondasunak eta aberastasunak pobrearekin ez zituela banatu errotan da.

Euskal-erriaren barna familia asko dira aberatsen maitik erortzen diren ogi apurrez bizi direnak. Familia eta pertsona askotxo dira «Caritas» erakundearen laguntzarekin bizi direnak. Bein urte batzuk arrapatu ezkerre pertsona anitzii lana, beraz soldata, ukatu egiten zaie.

Lazaro ugarri mundu onetan. 1.116 milloi pobre bizi omen dira gure mundu aundi onetan. Oientzat ez dago lanik, ez dago ogirik, ez dago soldatarik, ez dago etxerik...

Baiña ori guztia gure errikan kampo gertatzen den zerbait dela dirudi. Emen obeto bizi gerala dirudi. ala ote?

Gure seme-alabei ematen diegun eziketa artertzera garamatza gaurko ebanjelioak. Izan ere, umearen gaurko eziera biarko jarduera.

Artzalluz'tar Joxemari

Erriberako euskal begia

Nola aldatu den Erribera, euskarari buruz ikustea, arritzekoa da. Zifazko euskaldun bat ezagutu dut bertan. Izena, Daniel Lopez Moreno dauka. Gizon gazte onek begi ernea du. Euskarari buruz, Tuteran eta Erriberako giroa ezagutzeko berri aipagarriak eman zitzaizkion. Euskaldun-berria da. Azkeneko onetan Tuteran bizi zaigu. Ara errenkan jarria albiste ederren mamia.

Lareun euskaldun daude Tuteran orain. Toki batzuek ba dauzkate euskal izen zarrak, adibidez «Landazuria» (Bardena Blanca) ta «Txiri mendia».

Nafarroa'ko Jaurilaritzaren aldetik Erriberako lurraldea toki ez euskalduna bezala artua dago. Orregatik ez daukate eskoletan -D delako erudirik, dena euskaraz. Eredu -A, zerbait euskaraz, gurasoak eskatu ezker, euki dezateke ikastetxean.

Jaialdia bertsolarietara egin dute eliz-goi bazter batean. Irurrogi ikusle agertu zitzaizkien. Bertze batzuen artean, Aroza bertsolaria antxe zegoen. Tuteran'ko liburutegian ere, euskal aldizkariak daukate.

Ba dago Tuteran Izkuntza-Eskola. Lenengo maillan euskara ikasten ogeitamar ikasle daude ta bi irakasle, Andoni Alba Goizueta'rra, ta Agurza-ne Duka Leizua'tarra. Orain dela zortzi urte AEK taldeak gabeskolak sortu ditu: irurrogi ikasle dituzte lau irakasleekin. Urtero eukararen eguna ospatzen dute erriberekin.

Gaur ere -A, Erri ikastetxe batean dauka, «Monte San Julian» delakoan. Euskara ikasten ogeitaborts ikasle daude. Iru orduaz asteen ematen dizkie Ana Morkillas, Tuteran' tar euskal irakaslea.

«Extra-eskola» maillan, euskara bertze borts ikastetxe publikoetan ematen dute. «Griseraz» delakoan, arduraduna Jose Maria Uztarroz Santakara da. Bi taldetan ogeitabi ikasle dituzte; euskal irakasle bat Alizea Izkierdo Donlo. «Virgen de la Cabeza» delakoan amaborts ikasle dituzte, arduradun bat Jose Armendariz ta euskal irakasle bezala Ana Carmen Grao Perez. «Monte San Julian» delakoan, bi taldetan, ogeitabat ikasle daude; Mari Cruz Sol Perez arduraduna ta irakasle bezala Amaia Lizaso Alvarez. «E.T.I.» delakoan, amabi ikasle daukate, arduradun bat Migel Vallejo ta euskal irakaslea Kristina Otegui. «Benjamin de Tudela» delakoan, amaika ikasle ba dituzte; Jose Maria Mateo arduraduna ta Kristina Otegui irakaslea.

Jesuitak daukaten ikastetxean euskara «extraescola» bezala ematen dute; talde batean borts ikasle datorkie ta Aita Marizkurrena irakaslea.

Tuteran inguruan berriz, erri batzuetan ere -A daukate erri-ikastetxe-tan: Kortez'ko errian bi irakasle dituzte (bat Urzaiz), Ablitas'ko errian bi andereño, Kaskante errian bi mutil irakasle, Kastejon'en neska bat.

Nor dugu Erriberako Daniel Lopez Moreno euskaldun-berri guztiz argia? Ablitas'en jaio zen 1946 garren urtean. Xabier'en jesuitekin ikasi zuen. Euskara ikastera Errexil (Gipuzkoa) errira joan zen, Otegitxo baserri-ara (Aita Agirretxe'ren jaiotetxera). Deusto'ko ikastetxe Nagusian Edesti gaietan Lizentzi agiriara atera zuen, baita euskara ongi ikasi. Irakaslea dugu. Euskara irakasten urte aunitz egin ditu; 1977-1980 urtean tarte ortan Indautxu'n, 1980-1987 urteetan Lizarra'ko ikastolan.

1986'garren urtean ezkondu zen. Iru seme ditu: bizpauru ikastolan daude. 1987'garren urtean Tuteran'ra zertorren, «E.T.I.» delako ikastetxera, gizarte-aui gainen irakasle bezala. Or dago oraindik lanean.

Idazle dugu. Euskal gaiak erabiltzen ditu bertako izparrigietan. Ikastolak, euskarari laguntzen aurrelariak direla, aitortzen du. Asmo bat, barruan oso sartua dauka: «Erri xeak berrituko du Nafarroa».

Auxe dugu egitazko eusjalduna. Erribera euskalduntzeko eren dabil, ari ta ari, eten gabe.

Latxaga